2022ko martxoan erregistratutako langabezia

2022ko martxoan zehar LANBIDEko bulegoetan % 1,1 langabe gehiago erregistratu dira, langabe kopurua 117.085 da, aurreko hilean baino 1.270 gehiago. Hil honetako datuek ez dute joera argirik izan azken 15 urteetan. 2015arte arte, langabezia igo egiten zen martxoan (2008an izan ezik); batzuetan, gainera, era nabarmenean: 5.000 pertsonatik gora. 2016-2019 tartean, berriz, jaitsi egin da langabezia hil honetan; 2020tik hona, ordea, berriz ere goranzko joera erakutsi du.



	mar. 08	mar. 09	mar. 10	mar. 11	mar. 12	mar. 13	mar. 14	mar. 15	mar. 16	mar. 17	mar. 18	mar. 19	mar. 20	mar. 21	mar. 22
Saldoa	-731	5.437	982	6.095	2.588	1.335	2.112	510	-619	-1.06	-71	-1.91	10.97	993	1270

Aurreko urteko martxoarekin alderatuz, 12.936 pertsonatan murriztu da langabezia. 2020ko martxoarekin alderatuz (pandemia hasi aurreko hilabetea) 11.128 langabe gutxiago zenbatu dira.



- SEXUA

2022ko martxoan erregistratutako langabezia

Azken hilabetean, bai gizonezko zein emakumezkoen artean hazi egin da langabezia (+757 eta +513, hurrenez hurren). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago murriztu da langabezia (-6.875) emakumezkoen arten baino (-6.061). Krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa izan dute. 2020ko martxoarekin alderatuz, 6.315 gizonezko gutxiago daude langabezian, emakumezkoak, ordea, 4.813 gutxiago dira. Gaur egun langabeen % 56,6 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia adin tarte guztietan hazi egin da. Gorakada handiena 30 urtetik beherakoen artean erregistratu da (+% 1,80); 30-44 adin tarteak jarraitu dio (+% 0,83), eta, 45 urtetik gorakoen artean %1,03 igo da. Urte arteko bilakaeran, korrelazio handia ikus daiteke langabeziaren beherakadaren eta langabeen gaztetasunaren artean; nabarmentzekoak dira 30 eta 44 urte bitartekoen artean eman den murrizketa (% -15,71) eta 30 urtetik beherakoen artean eman dena (%-13,64). 45 urtetik gorakoen artean %4,92 hazi da soilik.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Martxoan, langabezia sektore guztietan hazi da; gehien industria sektorean (+% 2,22), eta gutxien, eraikuntzan (+% 0,44). Lan-esperientziarik ez dutenen artean % 1,4 hazi da langabezia hil honetan. Iazko egoerarekin alderatuz gero, aipatzekoa da industrian (-% 14,41), eraikuntzan (%-11,84) eta zerbitzu sektorean (-% 9,42) egon den beherakada nabarmena. Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean, % 8,08 murriztu da.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren gorakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

- 56 Janari eta edarien zerbitzua ..... +408
- 78 Enpleguarekin loturiko jarduerak ..... +156
- 86 Handizkako merkataritza ..... +120
- 85 Elikaduraren industria ..... +83
- 53 Etxeetako jarduerak ..... +78

Aitzitik, martxoan erregistratutako langabeziaren murrizketa izan duten jarduerak hauek izan dira:

- 87 Eraikinetako zerbitzuak eta lorezaintza-zerbitzuak ..... -33
- 55 Ostatu-zerbitzuak ..... -33
- 77 Alokairu-jarduerak ..... -22
- 94 Elkarteen jarduerak ..... -21
- 71 Arkitektura eta ingeniaritza; saiakuntza eta analisi teknikoak ..... -21

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 804 pertsonatan hazi da (+% 1,39) eta epe laburrekoa, ere, hazi egin da (466 pertsona gehiago, +% 0,80). Urte osoari begiratuz gero, epe laburreko langabeen artean murrizketa txikiagoa eman da (-% 4,44) epe luzekoen aldean (% 14,85). Krisiaren luzatzeak epe luzeko langabezia nabarmen igotzea eragin zuen; gaur egun, zorionez, bestelakotzen ari da egoera; 58.586 langabe iraupen luzekoak dira, langabe guztien % 50a.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

2022ko martxoan erregistratutako langabezia

Martxoko bilakaera honako hau izan da: Araban langabezia % 0,87 hazi da, otsailean baino 171 langabe gehiago, 19.900 langabe guztira. Gipuzkoan % 1,79 hazi da, 547 pertsona gehiago daude langabezian otsailarekin alderatuta (langabetu kopuru totala 31.151koa da) hil honetan bilakaera okerrena erregistratu duen lurraldea izan da. Azkenik, Bizkaian, otsailean baino 552 langabe gehiago daude (% 0,84ko hazkundea), langabetu kopurua 66.034 da; portzentualki bilakaera onena izan duen lurraldea da

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio hoberena % 10,23ko murrizketarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 9,87ko murrizketarekin eta azkenik Araban % 9,12 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean langabezia 78 pertsonatan hazi da (+% 0,34), Vitoria-Gasteizen 120 pertsonatan hazi da (+% 0,78) eta Donostian 63 pertsonatan hazi da (+% 0,83). Hazkunde nabarmenak izan dituzten zenbait eskualde, Durangaldea (+207), Ezkerraldea (+162) eta Debagoiena (+110) izan dira. Bestalde Txorierrin (-58), Busturialdea (-31) eta Gobelan (-20) erregistratu dira murrizketa nabarmenenak.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Oion (% 18,77), Sestao (% 17,87), Lanestosa (% 16,36), Alonsotegi (% 16,30) eta Labastida/Bastida (% 16,28).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2022ko martxoan 38.777 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 72 langabe gutxiagok. Langabeen % 33,12k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 21.327 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 18,21 dira horiek. 17.450 langabek (% 14,90), berriz, langabezia prestazioaren bat jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 35,2), Bizkaian % 32,2koa da eta Araban % 32,7koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0,43 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz ere, 0,46 puntu murriztu da.

Martxoan ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua jaitsi egin da eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua baita ere.

- **JATORRIA**

Langabeen % 16,42 (19.220 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia gehiago hazi da atzerritarren artean (+% 2,53) bertakoen artean baino (+% 0,82). Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 9,01 murriztu da, eta bertakoen artean % 10,13.

Langabe atzerritarren % 33,9 Afrika iparraldekoak dira, % 23,4 Latinoamerikatik datoz, % 18,2 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,9 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 6,1, azkenik, Asiatik. Martxoan Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako pertsonen artean hazi da gehien langabezia (+117); Europako Esparru Ekonomikotik etorritakoen artean, aldiz, gutxien hazi da (+85).

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 60,8k (70.369 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 139 langabetu gutxiago erregistratu dira; % 0,20 murriztu da langabezia azken hilean. Azken urtean % 8,88 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,9 dira. Talde horretan % 0,16 hazi da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 11,37 murriztu.

2022ko martxoan erregistratutako langabezia

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 21.240 dira, hau da, langabeen % 18,5. Talde hau martxoan zehar % 0,16 murriztu da, eta azken urtean - % 11,55.

Azkenik, langabeen % 11,8k (13.707 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 0,20 hazi da langabezia azken hilabetean eta, aldiz, % 14,02 murriztu da azken urtean.

- KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 2.921 langabe gutxiago daude aurreko hilean baino (% 0,09ko beherakada). Guztira 3.108.763 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 1,1 igo da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 2,09 hazi da, Errioxan % 2,31 hazi, Kantabrian % 1,94 murriztu da eta Gaztela eta Leonen % 0,38 murriztu. Katalunian % 0,05 murriztu da eta Madrilen ere murriztu egin da; % 0,28 hain zuzen ere.

Lan-eskatzaile langabeak 2022eko martxoan

	Mar-2022	Ots-2022	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	50.863	50.106	757	1,51
EMAKUMEZKOAK	66.222	65.709	513	0,78
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	19.429	19.085	344	1,80
GIZONEZKOAK	9.515	9.245	270	2,92
EMAKUMEZKOAK	9.914	9.840	74	0,75
25-44 URTE:				
GUZTIRA	35.766	35.470	296	0,83
GIZONEZKOAK	14.351	14.196	155	1,09
EMAKUMEZKOAK	21.415	21.274	141	0,66
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	61.890	61.260	630	1,03
GIZONEZKOAK	26.997	26.665	332	1,25
EMAKUMEZKOAK	34.893	34.595	298	0,86
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.586	2.538	48	1,89
INDUSTRIA	12.870	12.591	279	2,22
ERAIKUNTZA	7.453	7.420	33	0,44
ZERBITZUAK	79.134	78.432	702	0,90
AURREKO ENPLEGURIK GABE	15.042	14.834	208	1,40
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	19.900	19.729	171	0,87
BIZKAIA	66.034	65.482	552	0,84
GIPUZKOA	31.151	30.604	547	1,79
EAE	117.085	115.815	1.270	1,10

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	4.049	10,8%	48	1,20	-463	-10,26
Oarsoaldea	3.656	10,0%	42	1,16	-316	-7,96
Donostia-S.Seb.	7.674	8,6%	63	0,83	-1.080	-12,34
Donost.Mendebaldea	3.095	8,2%	57	1,88	-299	-8,81
Tolosaldea	1.924	8,1%	18	0,94	-279	-12,66
Urola Erdia	1.203	7,7%	9	0,75	-169	-12,32
Goiherri	1.663	7,7%	86	5,45	-109	-6,15
Deba Garaia	2.404	7,9%	110	4,80	-215	-8,21
Deba Behera	2.769	10,5%	89	3,32	-199	-6,70
Urola Garaia	1.077	8,8%	11	1,03	-117	-9,80
Urola Kosta	1.637	7,2%	14	0,86	-167	-9,26
GIPUZKOA	31.151	8,8%	547	1,79	-3.413	-9,87
Vitoria-Gasteiz	15.440	12,2%	120	0,78	-1.640	-9,60
Aialako Ibarra	2.222	11,9%	18	0,82	-227	-9,27
Arabar Errioxa	709	13,1%	29	4,26	-60	-7,80
Arabako lautada	749	9,9%	5	0,67	-56	-6,96
Gorbeia inguruak	317	6,8%	-4	-1,25	-6	-1,86
Arabako Ibarrak	433	8,5%	2	0,46	-2	-0,46
Arabako Mendialdea	94	6,0%	3	3,30	-27	-22,31
ARABA	19.900	11,9%	171	0,87	-1.998	-9,12
Gobela	4.693	9,3%	-20	-0,42	-573	-10,88
Txorierri	2.168	9,5%	-58	-2,61	-366	-14,44
Uribealdea	3.026	9,1%	19	0,63	-380	-11,16
Durangaldea	3.389	9,2%	207	6,51	-400	-10,56
Busturialdea	2.122	9,9%	-31	-1,44	-374	-14,98
Lea-Artibai	1.029	8,6%	65	6,74	-52	-4,81
Enkarterriak	1.997	13,1%	33	1,68	-170	-7,84
Arratia-Zornotza	1.537	8,8%	19	1,25	-140	-8,35
Arratia-Nerbioi	1.320	10,3%	13	0,99	-165	-11,11
Bilbo	22.739	13,5%	78	0,34	-2.459	-9,76
Ezkerraldea	17.349	14,0%	162	0,94	-1.888	-9,81
Ibaizabal	4.582	11,4%	61	1,35	-537	-10,49
BIZKAIA	66.034	11,9%	552	0,84	-7.525	-10,23
EAE	**117.085**	**10,9%**	**1.270**	**1,10**	**-12.936**	**-9,95**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.

** Tolosaldeko, Arabar lautadako eta Durangaldeko datuak ez dira fidagarriak administrazio-kudeaketa arrazoiengatik. Arrazoi horiek Abaltzisketako, Alegria-Dulantziko eta Abadiñoko erregistratutako langabetu kopurua haztea ekarri du, helbide osatu gabe zegoen kasuetan.